

txi
kitto!

2025eko urria



ARRATEKO
KONDAIRA
ARTEAN
JOLASEAN

Aurkibidea

TXISTEAK 3

IKASLEEKIN
BERRIKETAN..... 4

IKASTETXEETAKO
BERRIAK 6

BANAKIXAN
BANAKIXALA 8

GURE NAGUSIEKIN
BERBETAN 9

SUKAL-SALTSAN 10

DENBORAPASAK 11

LEHIAKETA 13

ZER IRAKURRI
BITXIKERIAK..... 14

IPUINA 15

ZU BAI MARGOLARI 16



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Irati Alvarez, Irune Jaio eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte

Erredakzioa

Irati Alvarez eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak

Yanire Sagredo

Diseinua

Irune Jaio

Azaleko argazkia

Irati Alvarez

Copyright-a


Txikitto!

Lege-gordailua


SS-1111/96

**ZER EGITEN DU BIC
BOLIGRAFO BATEK LEIHOTIK
BOTATZEN DUZUNEAN?**
- aEROBIC-a.

Zer esaten dio semaforo
batek beste bati?
- Ez begiratu, aldatzen ari
naiz-eta.



**- Zer dio oilasko
batek beste bati?**
- Ezta txio ere.



Gelara irakasle berri bat
etortzen da eta zera esaten
du

- Egun on, nire izena Luzia da.
Eta Jaimitok erantzuten dio
- Ez du axola, badugu denbora.

Kartzelara iritsi berri den batek
zera galdetzen dio beste bati:
- Zu zergatik zaude hemen?
- Ez didatelako kalera irteten
lagatzen.

**- ama, ama, ikastolan
despistatua naizela esaten
didate.**
- aizu, ume, zoaz zure
amarengana!



- Asier, aldatu ura arraineri.
- Bai, zera, oraindik ez dute
amaitu joan den astekoa!



**- NOLA esaten diete
amerikarrek tomateari?**
- KETCHUP.

"ARRATEKO PAUSOAK":



TESTUA: **IRATI ALVAREZ** / BIDEOA: **YANIRE SAGREDO**

Urkizu eskolako ikasleak Arratera igo ziren irailean, "Arrateko Pausoak" izeneko bidetik gora. Bide horrek kondaira zahar bat du: diotenez, Ama Birjina Arraten agertu zitzaion artzai bati, eta eibartarrek haren omenez eliza bat eraikitzea erabaki zuten.

Hasieran, Azitain aldean hasi omen ziren eraikitzen, baina gauero, Ama Birjina aingeru itxuraz agertzen zen eta harriak burdian jasotzen zituen Arrateraino. Bidean, hiru geldiupe egin zituen, eta, horregatik, gaur egun, hiru Santutxo ikus ditzakegu bidean gora.

Arratera helduta, zelaian eta gurutzearen inguruan jolasean aritu ziren, barre eta poz artean. Egun zoragarria izan zen, eta horrela eman zioten hasiera ikasturte berriari, energia eta irribarrez beteta!

BIDEOA
YOUTUBEN





Carol Marquina

10 urte

3,6,8... gorputzarekin
zenbakiak irudikatu
genituen taldeka lurrean.

Davon Igbins David

12 urte

Zapiaren jolasa gustatu
zitzaidan niri.
Korrika pila egin genuen!



June Martin

11 urte

Gure taldea irabazle
izan zen uraren
jolasean!

Luqman Arahmane Berabah

9 urte

Aurpegia marraztu genuen!
Super Luqman izan nintzen
ni, Super Luigi bezala.



URKIZU

Urriaren 3an, LH 3. eta 4. mailetakoak Oñatiko Natur Eskolara joan ziren, nolako abentura! Aizkirri kobazuloetan hartz baten hezurrak ikusi zituzten! Arantzazuko Monastegian bazkaldu zuten Oteizaren “Hamaika Apostoluek” lagunduta eta eurek egindako kandela bana eskutan pozik itzuli ziren.



ARRATEKO ANDRA MARI

Ederra izan da udara honetan zehar Guggenheim Museoan gure iazko 6. mailakoen erakusketa ikusi ahal izatea, “Artea Ikasbide” Hezkuntza Programaren bidez egin zutena.



ITURBURU



Iturburuko 6. mailako ikasleak, irailaren 10, 11 eta 12an Zuhatzara joan ziren. Eguraldi oso ona izan zutenez, jarduera ederrak egiteko aukera izan zuten: pedaloa, piragua, windsurfa, arrauna... eta egunero bainu ugari hartu zituzten.

AMAÑA

Amañako ikasleok egun pasa Arratera joan ginen irailean. LH 4., 5. eta 6. mailetako ikasleok Amañatik oinez eta gainerakoak autobusez Ixuaraino eta handik oinez Arratera. Arraten jolasean eta dantzan ibili ginen, primeran!



LA SALLE



La Salle ikastetxeko LH 3., 4. eta 6. mailetakoak Donostiako Zinemaldian egon ziren. Pelikula bat ikusi eta bertako alfonbra gorria zapaldu zuten, artistek bezala!

SAN ANDRES

Ikasturte berriari ongi etorria emateko, San Andres eskolako LHko ikasleak Arratera joan ginen irailaren 26an. Jolas desberdinak egin genituen eta naturaz lagunartean gozatzeko aukera ere izan genuen. Ederto ibili ginen!



ALDATZE



Hilaren 3an, urtero bezala, LHko 4., 5. eta 6. mailetako ikasleak oinez igo ginen Arratera, bertan lagunartean egun zoragarria pasatzeko asmoz. Horrela izan zen, asko gozatu genuen!



ARIES

*martxoak 21
apirilak 20*

Udazkeneko aire freskoak energiaz betetzen zaitu. Jolasetan azkarra eta bizkorra izango zara, baina gogoratu denek ez dutela beti korrika jarraitzeko indar bera. Zure poza partekatzen baduzu, lagunek gehiago estimatuko dute. Patioan lider sentituko zara, baina utzi besteei ere irabazten!



TAURUS

*apirilak 21
maiatzak 20*

Hil honetan lasaitasuna beharko duzu. Lanak apurka-apurka egiten badituzu, oso ondo aterako dira. Batzuetan kostatuko zaizu altxatzea edo jolas berriren batean sartzea, baina behin animatuta oso gustura ibiliko zara. Udazkeneko hostoek eta koloreek poza ekarriko dizute.



GEMINI

*maiatzak 21
ekainak 20*

Zure buruan mila ideia izango dituzu eta bat-batean kontatu nahi izango dituzu guztiak. Lagunek asko gozatuko dute zure istorioekin, baina kontuz: ez kontatu guztiak batera, bestela denak nahastu egingo dira! Irribarre ugari banatuko dituzu eta barre asko egingo duzu.



CANCER

*ekainak 21
uztailak 20*

Etxeko beroa asko gustatuko zaizu hil honetan. Manta batekin sofan ipuin bat irakurtzea plan perfektua izango da. Baina ez zaitez beti barruan geratu: lagunekin kalera ateratzea ere goxoa izango da. Zure bihotz samurrak besteen zaintza handituko du.



LEO

*uztailak 21
abuztuak 20*


Udazkeneko jolastokian zu izango zara liderra. Ideia berriak proposatuko dituzu eta lagunek jarraituko zaituzte. Hala ere, ez ahaztu tarteka gidaritza beste bati uztea: horrek zure taldea indartuko du. Zure irribarreak eguna alaituko die ingurukoei.



VIRGO

*abuztuak 21
irailak 20*

Antolaketa maite duzu eta hori oso baliagarria izango da hil honetan. Motxila ondo prestatuko duzu eta etxean gauzak txukun edukiko dituzu. Udazkeneko hostoekin artelan bat egiteko gogoia izango duzu: sormen hori partekatu eta denak harrituta geratuko dira.



LIBRA

*irailak 21
urriak 20*

Zure lagunekin oreka bilatuko duzu. Batzuetan gorabehera txikiak sortuko dira, baina hitz egiten eta irribarre batekin barkatzen jakingo duzu. Azkenean, elkarrekin jolasteko gogoia izango duzue beti. Egun euritsu batean lagun bati irribarre egiteak magia egingo du.



SCORPIO

*urriak 21
azaroak 20*

Sekretuak gordetzeko oso ona zara eta hil honetan zure misterioa areagotu egingo da. Baina gogoratu: lagunekin konfiantza partekatzea ere polita da. Agian norbait harrituko duzu zure jakinduriaren edo ideia berezi baten bidez. Zure begirada sakonak asko esango du.



SAGITARIO

*azaroak 21
abendua 20*


Abenturaz beteta etorriko da urria. Patioan joko berriren bat asmatuko duzu eta besteak animatuko dituzu parte hartzera. Zure energiak mugagabea dirudi, baina gogoratu atseden hartzea ere beharrezkoa dela. Zure baikortasunak guztien eguna alaituko du.



CAPRICORNIUS

*irailak 21
urriak 20*

Arduratsua zara eta hil honetan oso antolatuta ibiliko zara. Motxilan ez zaizu ezer ahaztuko eta eskolako lanak garaiz eramango dituzu. Baina gogoratu: jolasteko eta barre egiteko tarteak ere behar dira. Udazkeneko egun luzeetan atsedenak indarra emango dizu.



AQUARIUS

*urtarrilak 21
otsailak 20*

Ideia bitxi eta dibertigarriak bururatuko zaizkizu. Agian zure gelakoek ipuin edo txiste barregarri bat entzun nahi izango dute zugandik. Askotan pentsamendu bereziak dituzu, eta horrek lagunei sorpresa handiak emango dizkie. Ez izan beldurrik zure sormena partekatzeko.



PISCIS

*otsailak 21
martxoak 20*

Amets eta fantasiaz beteta datoz hurrengo asteak. Agian lo egin bitartean abentura arraroak biziko dituzu, baina hori zure imajinarioaren indarra da. Zure bihotz goxoak lagun bati laguntza eskaintzera bultzatuko zaitu eta horrek asko eskertuko du.



TESTUA: **EKHI BELAR**

Elena de la Torre, Nora eta Malen Lucenaren amama, San Andres eskolara etorri da ilobekin elkarrizketa egitera. Elkarren artean zenbat ezagutzen duten eta zenbat ezberdintasun dituzten jakiteko balio izan digu.

Zenbat urte dituzue eta noiz jaio zineten?

NORA eta MALEN: 10 urte ditugu eta Donostian jaio ginen.
ELENA: Nik 73 urte eta Eibarren jaio nintzen.

Zer ikusten duzue telebistan?

MALEN: Golazen.
NORA: Makusi.
ELENA: Albistegiak eta txutxumutxuen programak.

Zein musika gustatzen zaizu?

MALEN: Bulego taldea.
NORA: Pop musika eta reggaetoia gustatzen zait.
ELENA: Elton John.

Dirutza irabazi duzue. Zer da egingo zenukeen lehenengo gauza?

MALEN: Familiakoekin banatu edo kutxan gorde nagusiagoa naizenerako.

NORA: Familiari banatu eta unibertsitaterako dirua aurreztu.

ELENA: Nik gorde, gorde eta gorde (barreak).

Zein superbotere edukitzea gustatuko litzaizueke?

NORA eta MALEN: Teleportatzea.

MALEN: Edo animaliekin berba egitea.

ELENA: Uff, ez dakit. Munduko jakintza guztia edukitzea.

Jairik gustukoena?

ELENA: San Blas.

NORA: Gau Beltza.

MALEN: Ez dakit, jai guztiak gustatzen zaizkit.

Malen eta Nora, nolakoa da amama? Eta Elena, eurak nolakoak dira?

ELENA: Oso potxolak! Eta onak. Pixka bat bihurriak ere!

MALEN eta NORA: Jatorra eta pixka bat lotsatia. Ondo zaintzen gaitu.

Zer kenduko zenuke mundutik?

MALEN: Gerrak.

ELENA: Korruptzioa, inbidia... Hainbeste gauza txar daude!

NORA: Lapurrak eta hiltzaileak.

Eibarrek duen gauzarik onena? Eta txarrena?

MALEN eta ELENA: Onena jendea da.

ELENA: Eta txarrena zikinkeria.

NORA: Baita niretzat ere. Eta onena Untzagako plaza eta jendea dira.



PORRU ETA ROQUEFORT KROKETAK

OSAGIAK:


- 800ml esne oso
- 200ml esne-gain
- 120gr irin
- 120gr gurin
- 2 porru lodi (300gr)
- 200gr Roquefort gazta
- 1 koilaratxo intxaur muskatu
- 1 koilaratxo piper beltz
- Gatza
- 4 arrautza
- Ogi birrindua
- Olio



NOLA EGIN:

1. Porrua ahal duzun finena zatitu. Zartagin batean olio pixka bat gehitu eta porrua erregosi. Biguntzerakoan, roquefort gazta gehitu eta desegin. Multzoa irabiatu eta, osagaiak integratuak daudenean, gorde.
2. Gurina eta irina kazola batera gehitu. Su motelean, multzoa irabiatu, gurina desegin arte. Orduan esnea eta esne-gaina gehitu eta multzoa 15 minutuz irabiatu.
3. Ondoren, lehen gordeta dugun porru multzoa gaineratu eta irabiatu dena integratu arte. Erretilu batera pasa, filma jarri gainetik eta hozkailuan gorde.
4. Erabat hotza dagoenean, arrautzak plater batean irabiatu, eta beste bi plateretan ogi birrindua eta irina jarri. Eskuekin edo bi koilara erabiliz, kroketei forma eman. Ondoren, irinetik pasa, gero arrautzatik eta azkenik ogi birrindutik. Zartagin batean behar den olio gehitu eta bero dagoenean, kroketa frijitu, gorritu arte.

7 DESBERDINTASUNAK



HIZKI-ZOPA


Aurkitu asteko egunak

L	A	R	U	N	B	A	+	A	O
A	+	A	O	U	i	D	E	P	A
S	S	B	S	A	G	X	i	R	S
T	J	+	+	G	A	H	T	X	T
E	B	C	E	B	N	Y	P	Y	E
A	E	H	G	L	D	Z	O	R	A
R	H	X	U	+	E	A	K	Z	Z
+	R	J	N	i	A	H	Y	L	K
E	N	E	A	H	Y	J	E	L	E
A	Z	U	W	M	Z	A	H	N	N
H	Y	O	S	+	i	R	A	L	A

Astelehena Asteartea Asteazkena Osteguna
ostirala Larunbata igandea

LABIRINTOA

Eraman neska bere liburura



HIZKIAK ORDENATU

-Ordenatu letiak animalien izenak asmatzeko.

✓ ✓ ✓ ✓ ✓ ✓

Suage _____

AunTxi _____

Rinmagorrigoa _____

leaba _____

TXOoa _____

Taletxime _____



Egileak: Noah, Elsur, EIDEN ETA Mikel.

LE- HIAKE- TA

HURRENGO GAIA:
UDAZKENEKO
irudiak.

Bidali zure
marrazki edo
argazkiak
URRIaren 20a
baino lehen
...eta kitto!
Euskara Elkartera
(Urkizu 11, Eibar) edo
aldizkaria@etakitto.eus
email helbidera



Aurreko asteko irabazlea



Aupa **ANDER**, txapeldun!
Aurreko aleko erantzunak
bikain asmatu dituzu eta
zozketan zeu irten zara
irabazle. Liburua eta ...eta
kitto!-ko bisera zuretako!
ZORIONAK!

6 urte

Kakontzi kapitainaren beldurrak

Kakontzi kapitaina pirata guztien artean ausartena zen, baina, duela gutxi, edozeren beldur izaten hasi zen, baita bere itzalaz ere. Begiurdindun mamuaren itsasontzian, Kakontzik aurre egin beharko dio mamuari berari, baita banpiro bati edo eta... gizotso bati ere!



8 urte

Desagertutako maskoten kasua

Gurasoak etxean ez daudenean, Ulises, Nora eta Bruno Misteriori gauza arraroak gertatzen zaizkie. Oso-oso arraroak. Zorionez Txatxu daukate, hitz egiten duen txakurra. Txatxuri, gainera, arrastoren bat aurkitzean sudurra txistuka hasten zaio! Oraingoan, hiriko animalia guztiak letxuga bihurtu dira. Txakurrak, katuak, kanarioak eta baita iguanak ere, orain entsalada egiteko moduan daude denak. Edo norbaitek eraman ote ditu? Non daude hiriko maskotak?



10 urte

Itsas azpiko abentura

Dama Ilunak Urrezko Orrazi Handia lapurtu nahi du, itsaslaminen altxorrik preziatuena. Lortzen badu, gaiztakeria nagusituko da munduan. Hori galarazteko modu bakarra dago: itsaspeko mundurako sarrera sekretua aurkitzea. Gure misioa Gaztelugatxen hasiko da, gau bateko kanpaldi batean. Piraten istorioen artean, hontz misteriotsu bat entzunez eta ulertezinak diruditen hieroglifikoei aurre eginez, konturatuko gara kondairak guk uste baino errealagoak direla...Hartu lo-zakua eta zatoz gurekin. Garaiz iritsiko ote gara?



BITXIKERIAK

Australia
Ilargia baino
zabalagoa da. Ilargiaren
diametroak 3.400 km
ditu eta Australiak
4.000 km.

Hodei
batek **milioi**
bat tonako
pisua du.

Eiffel
Dorrea 15 cm
handiagoa
izan daiteke **udan**.
Altzairua berotzean,
partikulek energia
zinetikoa irabazte dute,
espazio gehiago
okupatuz.

KARRATUA TRIANGELUEN MUNDUAN

EGILEA: MARKEL SEGUROLA LH6B

Bazen behin karratu bat triangeluen mundu batean bizi zena. Ez zituen lagunik jolasteko eta bakarrik ibiltzen zen egunero. Egun batean kaletik ibiltzen zihoala triangeluek barre egiten hasi ziren itsusia zelako, baina karratuak ez zien ezer esan. Etxera iristerakoan bere amari esan zien gertatutakoa, eta han egon ziren hizketan.

Hurrengo egunean eskolara bidean lagun bat egin zuen, eta elkarrekin joan ziren eskolara. Ondoren jolastorduan, ezkutatu egin zen ez zuelako besteak bera ikustea. Etxera joan zenean amari esan zion nola bihurtu zitekeen triangelu batean, eta amak esan zion

- Trankil txiki denborarekin triangelu bihurtuko zara eta ez dizute barre gehiago egingo- karratuak eskerrak eman zizkion eta lotara joan zen.

Hurrengo egunean bere lagunarekin elkartu zen eta besteek ez zuten ezer ulertzen triangelua karratuarekin zegoelako. Geroago denek egiten zuten berba berataz, eta karratua oso triste zegoen. Etxean zegoela ez zekien zelan konpondu arazoa baina momentu batean izkinak moztea bururatu zitzaion, baina ez zekien nola egin. Hurrengo egunean ez zen eskolara joan eta alboko etxekoei artazi batzuk lapurtzen saiatu zen.

Hasieran beldurra zuen harrapatu egingo zutela pentsatu zuelako, baina indar guztiekin barrura sartu zen artazien bila. Gela batean sartu ondoren artaziak hartu eta irteten zegoela gainerakoak konturatu egin ziren, baina karratuak ihes egin zuen erraz.

Etxean zegoela izkinak mozten hasi zen ezkutuan, inori esan gabe. Amaitzerakoan bere amari erakutsi zion, eta amak esan zuen:


-Zer egin duzu, orain denek egingo dizute barre eskolan!- Karratua triste jarri zen eta bere gelan ezkutatu egin zen. Eskolara joan zenean denak aho zabalik geratu ziren eta bere laguna ere. Karratuak bere itxuraz barre egiten zeudela pentsatu zuen, baina bere inguruan zeuden eta ez zioten barrerik egin. Karratua harrituta geratu zen eta ez zioten barre gehiago egin inoiz.



Zu bai margolari

Zu bai

Nola jarraitzen du istorio honek?
Marraztu zure komikia!



margolari

Zu bai m

argolari

Zu

bai margolari

Zu bai

Zu bai margolari

margolari